

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ARANO-GOIZUETA

EH Bildu aurrena, Arano eta Goizuetan

Parte-hartzeak 10 puntu egin du gora. Jaitsiera nabarmenena Elkarrekin Podemosek izan du, bi herrietan.

HAUTESKUNDE Orokor haue-tako joera bera jarraituta, Aranon eta Goizuetan ere nabarmen igo da parte-hartzea, aurten. Aranoarren %54,55ek bozkatu du, 54 lagunek, aurreko %42,42aren aurrean. Abstentzioa, beraz, %45,45koa izan da, eta boto zuri bat. Goizuetan ere, %71,31k bozkatu du, 420 lagunek, aurreko %61,77aren aurrean. Abstentzioa %28,69koa izan da, eta boto baliogabe bat eta bost zuri ere kontatu dira.

Bi herrietan, EH Bildu izan da garaile, eta igota, gainera. Aranon botoen %55,56 lortu ditu (30 boto); aurrekoan, %38,10. Goizuetan, %68,74 (288 boto); aurrekoan, %67,47. Igoera lortu duen bigarren alderdia, baita ere, Geroa Bai izan da. Aranon botoen %24,07 lortu ditu (13 boto); aurrekoan, %21,43. Eta Goizuetan, botoen %13,37 (56 boto); aurrekoan, %12.

Jaitsiera, hirugarren indarra izateari eutsi badio ere, Elkarrekin Podemosek izan du. Aranon botoen %9,26 (5 boto) lortu ditu; aurrekoan, %30,95. Eta Goizuetan, %7,88 (33); aurrekoan, %13,07.

Igoera edukita, laugarren indarra izateari eutsi diona, berriz, PSOE izan da, Aranon botoen %5,56rekin (aurrekoan 0), eta Goizuetan, botoen %5,01ekin (aurrekoan %1,87). Navarra Suma koalizioak, aldiz, botoen %3,70 lortu ditu Aranon, eta %2,86 Goizuetan. Aurrekoan, UPN-PPk botoen %4,76 lortu zituen Aranon, eta %4 Goizuetan, eta Ciudadanosek %2,38 Aranon, eta %0,27 Goizuetan.

Nafarroa osotik, berriz, bina diputatu lortu dituzte NA+ eta PSOE Kongresurako, eta bat, Podemosek. ■

■ HERNANI HAUTESKUNDE OROKORRAK 2019

EH Bildu nagusi, boto kopuruan gora eginda

EAJk ere gora egin du, eta bigarren jarri da. Beherakada nabarmena, Elkarrekin Podemosek izan du. PSOEk, aldiz, gora egin du; PPk eta Ciudadanosek behera, eta VOXek botoen %0,95 lortu ditu.

URUMEA bailara osoan, eta orokorrean, Espainiako estatuan gertatu bezala, hauteskunde orokorretako parte-hartzeak gora egin du Hernanin ere; %72,62k bozkatu du, 11.440 hernaniarrek, eta 2016an %61,77 izan ziren. Abstentzioaren alde, beraz, %27,38k egin du, 4.313 hernaniarrek; eta 76 boto baliogabe (%0,66) eta 69 zuri (%0,61) izan dira.

Aurreneko bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk, igoera izan dute. EH Bilduk 4.044 boto jaso ditu (%35,59; 2016an, %30,72), eta EAJk 2.398 (%21,10; 2016an, %15,92). Jaitsiera nabarmena Elkarrekin Podemosek izan du, eta hirugarren indarra izatera pasa da: 2.263 boto jaso ditu (%19,91; 2016an, %30,58). PSOEk laugarren indarra izaten jarraitzen du, baina igorearekin: 1.796 boto jaso ditu (%15,80; 2016an, 11,43).

Bosgarren indarra, jaitsiera izan badu ere, PP izan da, 314 botorekin (%2,76; 2016an %6,26) eta seigarrena Ciudadanos, 226rekin (%2,02; 2016an, %1,98). VOXek botoen %0,95 lortu ditu; 108 boto. Atzetik, PACMAk 87 boto (%0,77), Recortes Cerok eta Aulki Zuriak 15na (%0,13), PUM+J-k 14 (%0,12) eta ELAK/PCTEK 12 (%0,11).

EAEn, EAJ aurretik

Kongresuko 350 diputatuetatik 6 aukeratzen dira Gipuzkoan, eta horietatik bina lortu dituzte EAJk eta EH Bilduk, eta bana, PSOEk eta Elkarrekin Podemosek.

Hain zuzen, Gipuzkoan 6 aukeratzen diren bezala, 8 aukeratzen dira Bizkaian, eta 4 Araban. Datu horien arabera,


Euskal Autonomia Erkidegoari erreparatuz gero, EAJk 6 diputatu lortu ditu, eta PSOEk, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk launa; 18, denera.

Senatuan ere gora EAJ, PSOE eta EH Bildu, Podemos eta PPren kaltetan

Kongresurako bezala, senaturako boto-emaileen kopuruak ere gora egin du. EAEn, 208 senataritatik 12 aukeratzen dira, eta EAJk lortu ditu gehien: 9; aurrekoan baino 4 gehiago. PSE-EEK, berriz, bi lortu ditu, eta EH Bilduk 1; 2016an ez zuten bakar bat ere lortu.

Senatari guztiak galdu dituztenak, Elkarrekin Podemos eta PP izan dira; 2016an, hurrenez hurren, 5 eta 1 lortu baitzituzten. ■

*Datu guztiak Espainiako Barne Ministerioak emandakoak dira.



Parte-hartzeak gora egin zuen atzoko zitan.

KRONIKAK INPRIMAKETAKO LAN POLTSA BERRITUKO DU

Bidali zure Curriculum Vitae-a, maiztaren 6ra arte:

kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea, hitzez zein idatziz
- Inprimaketa lanak egiteko gaitasuna
- Kotxeiko karneta eta kotxea izatea
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta enpatia

BALORATUKO DA:

- Inprimaketa lanetan esperientzia
- Urumea bailara ezagutzea
- Doberako bazkide izatea
- Tokiko hedabideak ezagutzea
- Aktualitatearen jarraipena egitea

DOBERA

Samitek

Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua

samitek@samitek.es
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

LARRE-GAIN TOLDE SAGARDOTEGIA

Igandean itxiko dugu txotx denboraldia

Eskerrik asko gurera hurbildu zareten guztioi!

943 55 58 46
616 28 78 67

EREÑOTZU - HERNANI



GAUR Goi-lainoak agertuko dira goizean zehar. Hala ere, eguzkia gailendu egingo da, eta tenperatura maximoek gora egingo dute. Orokorean, giro atsegina espero da, nahiz eta arratsaldean ipar-ekialdeko haize fina ibiliko den. **Min.7° / Max.19°**



BIHAR Aldaketa haundirik ez biharko. Zeru oskarbi egongo da, nahiz eta eguerdik aurrera laino batzuk agertuko diren. Goizean haizea noraezean ibiliko da. Tenperaturei dagokionez, berdintsu jarraituko dute. **Min.8° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA

EH Bildu garaile; EAJ, 37 botorra

2016an aurreneko indarra izatetik, hirugarren izatera pasa da Elkarrekin Podemos Astigarragan.


PARTE-HARTZE altua izan zen atzoko eguneko datu esanguratsuena, orokorrean. Astigarragan ere, Uru-mea bailarako tendentziari jarraiki, hamar puntuko igorera izan zuen 2016ko ekainaren 26ko hauteskundeekin alderatuta. Hain justu, %73,16koa izan zen parte-hartzea bertan (%63,65ekoa 2016an); horietatik, botoen %0,94a nuloa izan zen, eta %0,69a, aldiz, txuria. Astigarraren %26,84ak abstentziora jo zuen (1.289 herritar).

EH Bilduk, 1.007 boto

Paper balioudunen artean, EH Bilduk jaso zituen boto gehien: 1.007 (%28,93). Alderdi subiranista izan zen, gainera, milaren langa pasa zuen bakarra, 37 botorra izan baitzuen bigarren indarra: EAJ. Botoa eman zutenen %27,87ak egin zuen alderdi jeltzalearen alde, 970 astigarrarrek. Biek ala biek, 2016ko zitan baino ia 400 boto gehiago jaso dituzte.

Aurreneko indarra izatetik, hirugarren indarra izatera pasa da Elkarrekin Podemos oraingo honetan. Bera izan da, gainera, azkeneko zitatik botoak galdu dituenetako bat: 961 boto jaso zituen 2016an (%35,16); eta atzo, 730 jaso zituen (%20,97).

Atzetik geratu dira, botoak galduta baita ere, PP (110 boto, atzo; 164 boto, 2016an) eta Ciudadanos (73 boto atzo; 83, 2016an). VOXek 39 boto jaso zituen Astigarragan (%1,12); PACMAk bat gutxiago, 38 (%1,09); Recortes Cerok 10 (%0,29); launa, Aulki Zuriak eta PUM+J-k; eta bakarra, ELAK/PCTEK. ||



*Kronika honetan eskaintzen diren datu guztiak Espainiako Barne Ministerioak emandakoak dira.

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
Atzo hil zen, 47 urte zituela
- Goian Bego -
Senarra: Xabier Goikoebea; seme-alabak: Julen eta Maddi; gurasoak: Andres eta Axun; ezkon gurasoak: Bixente (†) eta Milagros; ahizpak: Izaskun eta Xabier, Idoia eta Pablo; ezkon anai-ahizpak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an
OHARRA: Gorputza Hernaniko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur goizeko 10:30ak arte.

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
Muxu eta besarkada goxo bat familia osoarentzat.
MADDI ETA JULENEN KOADRILAK
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
Kemenarekin borrokatuz joan zera, baina gure artean jarraituko duzu betirako. Maitasunez,
XABIEN FAMILIA
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
- Goian Bego -
MAITE (+), ANDRÉS, BONI, EDURNE, BEGOÑA, AINHOA, ANABEL, SUSANA, JON, NAGORE, IKER, BEÑAT, UNAI, PABLO, JOSUNE, NEREA, GORKA, IRATXE, JOSU, ASIER, NAIARA, JONE, LEIRE.
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
- Goian Bego -
Muxu haundi bat
ALDAREGIATAR OSABA-IZEBAK
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
Besarkada bat familiarentzat. Lagunak beti hor.
IDOIAREN LAGUNAK
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
Nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.
ZURE KOADRILA
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

AMAIA RODRIGUEZ ALDAREGUIA
(Maddi Goikoebearen ama)
Besarkada bat familiari
MANDAZUBI GURASO ELKARTEA
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

MARIA LETE ALTUNA
Herenegun hil zen, 85 urte zituela
- Goian Bego -
Hamar senideetan bigarrena Xabinoren bihotzean lehena, eta gudan betiko izango zarena. Egun handirarte, izeba.
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

MARIA LETE ALTUNA
Lore bat bezala joan zera udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.
JOSE MIGUEL ETA MARIA; AITOR, IÑAKI ETA LETICIA; URKO, EKAIN ETA IRAIA.
Hernanin, 2019ko apirilaren 29an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)